

GOBERNU BATZARRA

2016. 04. 18

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hemezortzian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peón Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
Idazkaria:	3.-Sutani Elkartearekin ekarpen ekonomikoa.
Jose Luis Unanue Ugalde	4.- Nazioarteko Lankidetzak: <i>a.-Dirulaguntzen oinarrien proposamena eta</i> <i>b.- Euskal Fondoa: 2016. urtean Tolosako Udalak kofinantziatuko duen proiektua.</i>
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	5.-Jatorkin elkarterekin hitzarmena onartzea.
Paulino Alonso Eraso	6.-Gizarteratzeko zerbitzu teknikoa kontratatzeako Plegu baldintza proposamena onartzea. 7.-Zumardi proiektua: Hitzarmenaren onarpena. 8.-8/2016 eta 9/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko apirilaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

Udalbatzak, 2015eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, eta 2016ko ekitaldirako ondorioetarako, ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezinaren pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzetan erroldatuta.

Hala ere, errekarua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

“Errekargu honen helburuen espiritu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errekaruaren salbuespena onartzea ala ez”.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Errekargua **EZ** aplikatzea 1 eta 3 eranskinean agertzen diren zergadunei. Ez aplikatzearen arrazoiak hauek dira: espedientean idazkariak diligenziazatuta jasotako zerrendan

La Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG n.º 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 27 de octubre de 2015, y a efectos del ejercicio de 2016, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal de habitantes que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Los contribuyentes que figuran en el expediente no están empadronados en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.-NO aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en los anexos 1 y 3 relación que, diligenciada por el Secretario, figura en el expediente. Los motivos para la nueva aplicación del

daudenak. 1. eranskinari dagokionez, egoera berezian daudelako, eta 3. eranskinean, berriz, gaur egun etxebizitza horiek hutsik ez daudelako.

BIGARRENA.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko erreargua aplikatzea 2. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen diren zergadunei, zeren 2016ko urtarrilaren 1ean ez zirelako inoren ohizko etxebizitzak.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

recargo son los siguientes: en el caso del anexo 1, por considerar que concurren circunstancias especiales y, en el 3, porque a fecha de hoy dichas viviendas no están vacías.

SEGUNDO.- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto a los contribuyentes que figuran en el anexo 2, que diligenciado por el Secretario, constan en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2016 dichas viviendas no eran viviendas habituales de persona alguna.

TERCERO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los/as interesados/as.

3.- Sutani Elkartearekin ekarpen ekonomikoa.

Gaia erabaki gabe geratu da hurrungo Gobernu Batzarrararte.

4.- Nazioarteko Lankidetzak:

a.- Dirulaguntzen oinarrien proposamena

Nazioarteko elkarlanari dagozkion dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak bi urtean behin argitaratzen ditu Udalak, eta aurten atera behar dira. Horretarako, Gizarte Politikako departamentuak oinarrien proposamena aurkeztu du.

Halaber, orain arte ezarrita zeuden helburuak mantentzen dira (A eta B atalak) eta aurten beste berri bat sartu da: C Atala.

Xedea da tolosarrak sentsibilizatzea beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak-ekintzetarako eta tolosarren artean sustatzea herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak.

Dena den, Gizarte Politikako departamentuak aurkeztu duen oinarrien proposamena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea Nazioarteko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarrien proposamena.

BIGARRENA.-Gehienez banatuko den kopurua 75.000 €-koa dela adieraztea.

HIRUGARRENA.- Onartutako oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

.....

b.- Euskal Fondoak: 2016. urtean Tolosako Udalak kofinantziatuko duen proiektua.

Beste herrialdeetako proiektu amankomunen finantziazioa dela eta, Udalak garai batean hartarako konpromisoa hartu zuen. Hori horrela, Euskal Fondoak aurkeztu duen “*LANKIDETZA EGITASMOAK / PROYECTOS DE COOPERACIÓN*”eko proiektuak azaldu dira Gizarte Politikako batzordean, eta horietatik lehentasuna eman zaion proiektua honako hau da:

Erref.	Proiektuaren izena
P236K	Norberak eraikitako 120 etxebizitza. V. Fasea

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikako departamentuak proposatutakoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 7.055 €-ko dirulaguntza ematea Euskal Fondoak egin dituen proposamenetatik P236K proiektuaren V. fasea kofinantzatzeko.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Euskal Fondoari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako Departamentuari.

5.- Jatorkin elkarterekin hitzarmena onartzea.

Jatorkin elkarteak Larramendi 9 zenbakian udal lokala erabiltzeko arautuko duen hitzarmen-proposamena aurkeztu da.

Hitzarmenaren ezaugarriak ikusi ondoren eta elkarte honen oniritziarekin, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Onartzea aurkeztutako Hitzarmena. Lagapenaren ezaugarri nagusiak hauek izango dira:

a).- Gehienez 4 urteko iraupena izango du.

b).- Dohakoa izango da, baina Elkartek lokalaren kontsumo eta mantenimendu orokorreko gastuak ordaindu beharko ditu.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Jatorkin elkarteari eta Gizarte Politikako Departamentuari.

6.- Gizarteratzeko zerbitzu teknikoa kontratatzeko Plegu baldintza proposamena onartzea.

Gizarteratze alorreko zerbitzu teknikoa irailean amaituko da eta, Gizarte Politikako Departamentuko teknikariaren iritziz, honen jarraipena beharrezkoa da. Horregaitik, departamentuko koordinatzaileak aurkeztu du zerbitzua kontratatzeko baldintza-agiriaren proposamena.

Ikusita, beste udal departamentu batzuetako teknikariek oniritzia eman diotela espedientean agertzen diren agiriei (Kontuhartzailatza, Berdintasuna eta Euskara), eta Gizarte Politikako batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gizarteratze alorreko zerbitzua kontratatzeko aurkeztutako baldintza agiria.

BIGARRENA.- Eskaintzaren zenbatekoa 3.799 € hilean izango dira eta Kontratua luzatzea erabakiz gero, aipatutako kopurua urtero berrikusiko da ezarrita dagoen formula aplikatuz.

HIRUGARRENA.- Zerbitzua emateko epea urtebetekoa izango da: 2016ko irailaren 26tik 2017ko irailaren 27ra. Kontratua luzatu ahal izango da beste urte bat, baldin eta alde zurretik Gobernu Batzarrak hala erabakitzen badu.

LAUGARRENA.- Prozedura irekia izatea. Horretarako GAO-n eta beste komunikabideetan argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

7.- Zumardi proiektua: Hitzarmenaren onarpena.

Zumardia elkarte eta Udalaren arteko hitzarmenaren berri eman da. Hitzarmenaren helburua honakoa da: "Tolosako Udalak Zumardia Kirol Elkarteari Zumardiaundia eta Pototxo guneko publikoak erabiltzen uzten dio, kontratu honi atxikitutako planoan agertzen diren gunek, hain zuzen ere. Lagatako gunek horiek Naturan bizi eta hezi proiektua aurrera eramateko erabili beharko ditu Elkarteak".

Ikusita hitzarmenaren helburua, bi guneko publikoen zesia egitea dela (Zumardiandia eta Pototxo gunek), Gobernu Batzar honek, Kirol batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako lagapen hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kirol departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Zumardia elkarteari.

8.-8/2016 eta 9/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **8/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **341.788,83 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **8/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **9/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **199.927,57€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 9/2016 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde